

# IKASLEEN TXOKOA - Inmaculada ikastetxea

II/ MARIAN BEITIALARRANGOITIA - ALKATEA

«Lehentasunak markatu nahi ditugu herritarrekin batera»



III / SAGARDOTEGIAK = ARAZOA??

«Txotx denboraldiak herriari arazoak ala irabaziak ekartzen dizkio?»



IV / ZINE KRITIKA

## Hairspray



Atapuerca,  
gure arbasoen bizilekua /IV



Ikasleen Txokoa kaleratzen da Hernaniko ikastola eta ikastetxeek Hernaniko Udalarekin eta Hernaniko Kronikarekin egindako elkarlanari esker. Datozen hilabeteetan jarraipena izango du.

## INMACULADA IKASTETXEA

**Marian Beitialarrangoitia - Alkatea eta Hirigintza zinegotzia :**

# «Lehentasunak markatu nahi ditugu herritarrekin batera»

Hernaniko alkateak tarte bat egin digu udaletxeak eskuartean dituen proiektuei buruz hitz egiteko.

**Noiztik ari zara politikan?**

Alkate naizenetik, lehen irrati kazetaria nintzen. Beraz, oso berria naiz politikan.

**Orduan, kazetaritza alde batera utzi al duzu?**

Momentuz, bai. Hau parentesi bat da nire bidean, baina bueltatzeko asmoa badut.

**Ez al da lan gehiegi alkatearen eta hirigintza zinegotziaren lanak bat egitea?**

Ez dute zerikusirik bata bestearekin, edozein lan da zaila lanak pilatzen badira. Kanpotik begiratuta hirigintza zinegotziaren lana zaila iruditu zitzaidan arren, azkenean gustatu egin zait.

**Musikaren inguruan mugimendu handia dago herrian, baina ez kontzertuak egiteko areto egokirik. Ba al dago areto berri bat egiteko proiekturik?**

Momentuz ez dago proiekturik. Gastu handia suposatuko luke eta udalak dirua nondik atera behar duen aztertu behar du. Gainera, beste eginbehar batzuk daude. Herriarekin ere, lehentasunak zein diren erabakitzen ari gara batzarren bidez eta hauek noiz egin.

**Polikiroldegiko berrikuntzarekin zer gertatzen ari da? Zertan dago?**

Enpresak hanka sartze ugari egin ditu eta indar gutxiarekin ari da lanean. Guk obra lehen bailehen buka dezaten nahi dugu, isunak ere jarri zaizkio enpresari.

**Udalak igogailuaren proiektuarekin jarraitzeko asmoa al du? Zein aldaketa egin behar dituzue?**

Proiektua aurrera doa, baina Pana Parketik egingo dugu; arazo gutxiago sortzen dituelako eta gainera merkeagoa aterako litzateke lurraren %60 publikoak direlako. Horrez gain, Pana Parkeari beste itxura bat eman nahi diogu eta jendeari ireki.

**Hiri debekatuan lortutako informazioa kontuan hartuko duzue?**

Bai, kontuan hartuko dugu lortutako informazioa. Orain puntu garrantzitsuenak aztertzen ari gara jendearekin batera.

**Gabonak laster datozenez, zergatik ez da gabonetako argirik jartzen Hernaniko zen-**



Marian Beitialarrangoitia, Hernaniko alkatea eta hirigintza zinegotzia.

**bait kaletan edo auzotan? Noren ardura da udaletxearena ala auzoena?**

Udaletxearen kontua dira. Argi propioak izan nahi ditugu baina garestiegiak dira, horregatik kontsumo baxukoak erosten ari gara merkeagoak direlako. Beste auzoetan argiak jartzeko asmoa badugu, ez bakarrik kaxkoan.

**Hernanin etxegintza proiektu asko daude. Zer gertatzen da Txantxillako proiektuarekin? Eta aparkalekuekin?**

Bai proiektua onartua dago, baina prozedura geldoa izaten da. Seguraski datorren urtean hasiko gara proiektuarekin. Obra egiten den bitartean aparkalekuak galtzen dira eta egia da, gero ere plaza gutxiago egongo direla; baina ez da aparkaleku asko galtzen.

**Gure ikastetxearen inguruan errepidea egiteko asmoa duzue. Ez al gara isolaturik geratuko? Eta egia al da atzeko sarrera galduko dugula?**

Ez, gaur egun dagoen bezala geratuko da; baina trafikoa errepide batetik pasa beharrean beste batetik pasako da, Txantxilla aldetik. Gaur egun trafikoa pasatzen den errepidea peatonalizatzeko asmoa dugu. Gu peatonalizazioaren aldekoak baikara. Bai, litekeena da sarrera hori galtzea.

**Ba honelaxe emango diogu amaiera elkarriketari. Eskerrikasko.**

Ez horregatik.

AINHOA ARANBURU, MAIDER TOLEDO  
ETA JOSU SARASOLA  
Inmaculada ikastetxea

# ikasleen txokoa

## SAGARDOTEGIAK = ARAZOA??

# Txotx denboraldiak herriari arazoak ala irabaziak ekartzen dizkio?

**Txotx** denboraldia gaur egun Hernanin arazo larria bilakatu da. Gazteek afaldu eta gero Astigarragara edo Hernanira jotzen dute, bertan giro polita izaten delako. Baina, herritar guztiek ez dute iritzi berdina. Iaz kaxkoko elkartekoek kexua ezarri zuten udaletxean, gazteek afaldu edota bazkaldu ondoren, herrira jotzen dutenean, iskanbilak sortu, pixa kaleetan egin eta txikizioa egiten dutela aldarrikatuz. Horrek Hernaniar asko kanpoko herrietara astebukaera pasa joatea bultzarazten ditu. Iritzi desberdinak jaso ditugu:

### ALKATEA:

**Zer neurri hartuko dituzu aurren, herrian txotx denboraldiko egoera hobe dadin?**

Hartzen diren neurriak mahai baten inguruan hartzen dira eta hor gaude, sagardozealeak, tabernariak, auzo elkartekoak eta gu. Ikuspegi desberdinak daude, tabernariak lan egin nahi du eta kaxkokoek lo egin nahi dute. Neurriak jarri daitezke, baina milagroak ezin dira egin. Tabernariak gauzez ezingo dituzte kristalezko edalontziak zerbitzatu eta ordutegia errespetatu beharko dute. Gure aldetik, municipal gehiago eta garbitzaile gehiago jarriko ditugu. Autobusek ezingo dute Zinkoenera sartu.

**Zure ustez ez al du merezi, egoera hori 4 hilabetez jasateak, herriari ospea eta dirua ekartzen badizkio?**

Txotxa onuragarria da Hernanirentzat, giroa dakar, eta jendea eta dirua dakartza. Ez da tabernariak irabazten dutela, hauek jaten ematen die harakinari, okinari, taxiak ere lana dute... saiatu gaitzen txotxak duen onura hori izurratu gabe gauzak onargarriago egiten.

**Zein asmorekin sortuko da sagardo gunea? Jendea hezteko edo jendea erakarri eta**

### **dirua lortzeko?**

Guk ez dugu oraindik erabaki proiektu horrekin bat egingo dugun edo ez, oso garestia baita. Sagardozealeek diote proiektu horrek zentzua duela herriko proiektu bezala hartzen bada, orduan proiektu hori argitaratu egin beharko da, eta herriak erabaki dezala behar den edo ez. Eta hori sagardoaren kulturaren lagungarri izango litzateke.


### SAGARDOZALEA

**Zer iritzi duzu gai honi buruz?**

Sagardozealeak eta tabernariak urtetan arazo horrekin kontzientziatuta lanean ari gara, baina oraindik ikusita jendea aste-bukaeretan gero eta gehio kontzentratzen dela, eta 4 bat aste-bukaeratan gero eta jende gehio ibiltzen dela herrian, ba oraindik neurri gehiago hartu beharko dira eta lantzen segi beharko da.

**Zure ustez ez al du merezi, egoera hori 4 hilabetez jasateak, herriari ospea eta dirua ekartzen badizkio?**

Nik ustet baietz, hor inork ez daukagu dudikan, gainera ez dut uste, onuradun bakarrak sagardozealeak eta tabernariak garenik, gero hor beste komertzio eta beste zerbitzu batzuk ere izaten dituzte beste



Guk txotx, herria errespetatuz, eta zuk??

irabazi batzuk, txotx denboraldiarengatik.

### TABERNARIAK

**Zer iritzi duzue gai honi buruz?**

Gure ustez, gai hori "puztu" egin zuten, ez baita hain larria. Txikizioak, iskanbilak hori dena kilometrotan, zerbezaren festan... ere pasatzen da, jende asko dagoelako. Hori bakoitzaren heziketari edo portatze-ko moduari dagokio.

**Kaleetan izaten den iskanbilaria hori, dioten bezala, zuen eta**

### **sagardozealeen errua al da?**

Gure ardura tabernaren barruan pasatzen dena da, sagardotegietan bezalaxe, kanpoan gertatzen dena berriz, udalarena.

### KAXKOKO BIZILAGUNA

**Zer iritzi duzu gai honi buruz?**

Denok ez dugu iritzi bera, baino jendeak ulertu beharko luke, badaudela bizilagun batzuk lo egin nahi dutenak. Baina guk ere ulertu behar dugu, gazteek festa nahi dute. Ondo pasa dezakete, ordea,

horrelako iskanbilarik sortu gabe.

**Zure ustez ez al du merezi, egoera hori 4 hilabetez jasateak, herriari ospea eta dirua ekartzen badizkio?**

Iazko egoera jasan behar badugu, ez. Ez baita normala, astelehen goiz batean ilobak eskolara eramatera atera, eta kaleetan dauden kristal guztiak, eta dagoen pixa usaia.

ESTI ARREGI, SARA VARONA  
ETA MARIA ALONSO  
Inmaculada ikastetxea



27

zenbakia

# ikasleen txokoa

## Atapuerca, gure arbasoen bizilekua

Atapuerkako aztarnategiak Europako espezie zaharrenaren aztarnak gordetzen ditu.

BUREBAKO korridorean Burgosetik 15 kilometrora eta 1000 metroko altitudetan aurkitzen da Atapuerkako aztarnategia. 1896 eta 1901 urtean, *The Sierra Limited Company*ak meatzaritzako trenbide bat eraiki zuen. Lan horiek fosilez betetako barrunbeak utzi zituzten begi bistan. Trinidad Torres paleontologoak fosilen garrantzia onartu zuen.

1994. urtean ikerlariak ia osorik zegoen pelbis bat aurkitu zuten, haren antzintasuna 800.000 urtetik gorakoa zen, eta horrek aldarazi zuen gizakia Eurasiara iritsi zelako usteari buruzko teoria. Aurkikuntza espezie berri bati zegokion *Homo Antecessor*-ari. Ikerketarekin jarrai zezaten Atapuerkako ikerlariak 1.000.000 euroko diru laguntza eman zieten, espezie berri bat aurkitzeaz gain, Europako zaharrena zelako. Diru horrekin indusketekin jarraitzeaz gain, museo teknologiko bat egin zuten espezie desberdinen bizitza irudikatzeke. Museoren zati bat Atapuerkako aztarnategian dago eta bestea Atapuerkako aztarnategitik 2 kilometrora. Aztarnak hain dira garrantzitsuak non Estatu Batuetako erakustaldi batera eraman baitituzte. Apiriletik urrira bitarte bisita daiteke Atapuerkako aztarnategia.

SARA VARONA  
AINHOA ARANBURU  
ESTI ARREGI  
MAIDER TOLEDO  
MARIA ALONSO  
JOSU SARASOLA  
Inmaculada ikastetxea




Atapuerkako aztarnategiak.



Orriaren egileak. Inmaculada ikastetxea.

### ZINE KRITIKA



Pelikulako kartela.

## ‘Hairspray’

ADAM Shankman-ek zuzendu eta koreografiak prestatutako filmea dugu hau. John Travolta, Michelle Pfeiffer eta Zac Efron dira aktoreetariko batzuk. Beste filme batean oinarritutako musikala da. *Hairspray* Tracyren istorioa kontatzen digu, neska potxolita honen ametsa *El show de Corny Collins*-en show-an dantzatzea da.

Neska honek denetik egingo du bere garaiko arrazakeria eta bidegabekeria desagertu dadin.

Adam Shankmanek John Watersen pelikulararen adaptazio bikaina eta oso dibertigarria egin du. Dударik gabe ikustera joaten den jende guztia berriz ikusteko gogoarekin ateratzen da. 1988an atera zuten beste bertsoaren antzera, honek ere Estatu Batuetako jendearen arazoa irudikatu nahi du: ez dutela mundua aldatzen ari denik onartu nahi.

Filme honen musikak harrapatu egingo zaitu, bai bere ironiaz betetako letrengeatik eta baita bere koreografiengatik ere. Gure ustez, oso filme egokia da, bai lagunekin ikusteko eta baita familiarekin ikusteko ere, gainera adin guztietako pertsonen ikus dezakete.

ESTI ARREGI  
SARA VARONA  
AINHOA ARANBURU  
MAIDER TOLEDO  
MARIA ALONSO  
JOSU SARASOLA  
Inmaculada ikastetxea